



EDEBÉ GAZTE LITERATURA SARIA

HITZ POZOITUAK

MAITE CARRANZA

giltza

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abaildu 'erori, nekatu'	«Senarra da mintzatzen dena, eta kito. Gizona ez da puntu horretaraino abaildu .»	(17)
abaildura 'unadura, nekadura'	«Orain ere ezin dut bat egin Nuria Solísen negarrarekin, eta abailduraren zurrunbiloan sartu nahi ez duenez...»	(118)
adore 'kemená, ausardia'	«...kalera irten eta Barbararen bila hasteko adorea izan nahiko nuke.»	(158)
adurra dariola ibili 'lerdea eroriaz ahotik'	«Hamasei urtetik beherako ipurdi guztiekin adurra dariola ibiltzen dela?»	(0)
aharrausi 'ahoa zabalduz neke oihua'	«Mutila presarik gabe eseri da eta aharrausi egin du.»	(45)
akuilatu 'zirikatu, ziztatu'	«Bera ere nire kapritxoa izan zen, neuk bilatu nuen, neuk akuilatu , neuk seduzitu.»	(139)
aldartetsu 'aldakorra, apetsua'	«Gauzak ezkututzen zizkion, horrelakoa zen bere estilo aldartetsua .»	(121)
amorru 'haserrea, sumindura'	«...eta amorru handia ematen zion ikasgelako beste neska batzuek..., hain maina ikusgarriak egin izanak»	(117)
anker 'krudela, bihozgabea'	«...jakinik Barbara ez dela desagertu, bere desira ankerra ez dela bete eta ez dela ezeren errudun.»	(125)
antzu 'baliogabea, ezertarako ez dena'	«Tarte batez horrela geratu dira, besarkatuta, agur antzu an bilduta.»	(19)
apar 'bitsa'	«Crawlean igeri egitea arasarik gabe geratu arte, eta bitsezko aparretan etzanda flotatzea, olatuek kulunkatuta.»	(12)
apoteosiko 'intensitate handikoa'	«..... agindu zion Pepek saio apoteosiko haren ostean.»	(195)
arakatu 'miatu, ikertu'	«Ez zuen nahi poliziak bere intimitateetan arakatzerik , ez trapo zikinak kalera aireratzerik.»	(27)
arrakala 'pitzadura, arraildura'	«Onartu du pitzadura oro arrakala bihur daitekeela.»	82
artega 'urduri, nerbioso/a'	«Eta lehen ingeleseko klasean, artega bezegoen, orain, etxeko sofán, ezinegonen batean dago.»	(161)
artezago 'zuzenago'	«Lopez duela hilabete batzuk baino artezago doa, baina ez dago askoz ere hobeto jantzita.»	(147)
asaldatua 'aztoratua, urduritua, kezkatua'	«Lozanok asaldatua eten du...»	232
atezuan 'tentsioan'	«Nuria lasaitu egin da une batez, baina laster jarri da atezuan .»	(16)
atondo 'atartea, ezkaratza'	«Barrutik, atondo ezatseginaren ilunpetik, ahots batek ea nor den galdetu du.»	(14)
ausaz 'zoriz, menturaz'	«Lau lerro idatzi nituen, ausaz aukeratutako orrialde batean...»	(41)
autoritarismo 'tiranokeria'	«Gogoratu du nola hitz egiten zion Pepe Molinak Nuria Solísi (...) haren autoritarismo latza.»	236
auzo lotsa 'beste norbaitengatik lotsa'	«Aurpegian sentitzen zuen auzo-lotsak jota, haizea hartu behar izan zuen abenikoarekin.»	(194)
axolagabekeria 'arduragabekeria'	«Nire nahasmenagatik eta inguratzen nindutenen axolagabekeriagatik .»	(203)
banpirizatuta 'hipnotizatuta, menpean'	«Liluratuta zeukan, banpirizatuta , eta andreak den dena sinesten zuen.»	(169)
baraurik 'jan gabe'	« Baraurik edukitzen ninduen, sufrutuz, harik eta bat-batean etorri eta janari gozoren bat usaintzen uzten zidan arte.»	(163)



begizta 'lazioa'	«Alkandora zuriz eta begizta beltzaz jantzitakoak...»	(146)
behea jo 'lur jo, etsi'	«Nuria Solisek behea jo zuen.»	80
bipil 'kementsua, adoretsua, ausarta'	«...persona baten argazkiak direla ematen du, medikuntzako ikasle alai eta bipil batenak...»	(22)
birrintu 'txikitu, zatitu'	«...baina, lau urte geroago, pilatuz joan zaion amorrua ikaragarria da, eta birrintu egingo du.»	(160)
bits aparra, arrapo'	«...eta olatua hurbiltzen den unean bertan, murgilduko egingo naiz, bits zuriko gandorra gainean dudanean.»	259
cartesiar 'logikoa, metodikoa'	«Elisabeth horrelakoa da, simplea eta cartesiarra ...»	(187)
debozio 'jaiera'	«Osabaren debozio zintzoa...»	(182)
desenkusatu 'aitzakia ipini'	«Bazoaz?, galdetu du nahigabetuta. Presa handia daukat, desenkusatu da Eva.»	(125)
deserri 'erbestea, atzerria'	«Beharbada, ez duelako nahi emazteak ikus dezan akademiako mutikotxo batek bazterrean eta deserrian utzi duela bere senarra.»	(175)
deus ez 'ezer ez'	«Eta Peperi hobe deus ere ez esatea gai horiei buruz...»	(29)
disonantzia 'tentsiozko desoreka'	«Diskrezioz dago apainduta, nabarmenkeria edo disonantziarik gabe...»	(14)
doluminak 'dolua adierazteko, atsekabea'	«...kalean ikasten da, jendearekiko tratuan, euren sufrimendua entzunez, saminean lagunduz, hiletetan doluminak emanez.»	(46)
dontsu 'zorioneko, loriatsua, bedekatua'	«Pepe Molinak Tele 5 katerako eman zuen prentsaurreko dontsutik ...»	(116)
ekintzaile 'aktibista'	«Non dago neska alai hura, emakume ekintzaile hura, ama ameslari hura?»	218
eklosio 'irtete unea, bilduta egonda'	«Ez zituen beharbezala aurreikusitako alabaren eklosioaren arriskuak.»	(26)
enbarazu egin 'oztopo edo traba egin'	« Enbarazu egin zien.»	(129)
enigmatiko 'misteriozkoa'	«Beste aukera bat dago ..., esan zuen modu enigmatikoan ...»	228
ergelkeria 'lelokeria, tentelkeria'	«Eta gero absurdoa iruditzen zaio... Ergelkeria handia izan da.»	(157)
errazio 'janari kopurua, jatekoa'	« Errazio txikiak egin, eta altxor baten moduan gordetzen nituen.»	(163)
erreguka 'eskean, otoitz eginez bezala'	«Pepe?, dio, erreguka bezala.»	(17)
errukior 'gupidatsu, barkakor'	«Laster helduko da anbulantzia eta ondo jarriko zara, gezurra esan dio, errukior ...»	269
esperantza-txinpart 'itxaropen izpia, arrastoa'	«...batzuetan, esperantza-txinpart bat sumatzen du euren begiradaren sakonean...»	(14)
fardel 'paketea'	«Zoruan etzan naiz, fardel baten moduan, eskuak burlan, eta hortzak gogor estutu ditut.»	(36)
filigrana 'hornigarri bihurri-bitxia'	«Nuriak sarrerako burdin hesia seinlatu dio, filigrana modernista bat, neska gazte baten gorputzean kiribildutako dragoi baten irudia.»	250
gaitzespen 'arbuioa'	«Eta horregatik jasan ditu gaitzespenak eta urrutiratzea.»	(132)



galga 'balazta, freno'	« Galga jarri behar izaten zion, baina aldi berean, bazekien Barbara martxan jartzen...»	(154)
gandor 'gangarra, kalparra'	«...eta olatua hurbiltzen den unean bertan, murgilduko egingo naiz, bits zuriko gandorra gainean dudanean.»	259
garondo 'lepondoa, kokota'	«Hura atzetik ikusteak larritasuna sortzen du, garondoan dituen orbanek zikin itxura ematen baitiote.»	(147)
gaztaintara 'marroia, gaztaina kolorekoa'	«...eta aita bezalako ile gaztaintara era kizkurra zeukan.»	(122)
giltzarrapo 'morroiloa, kandadua'	«Motorraren giltzarrapoarekin jolastuz eta niri zeharka begiraturaz.»	(141)
goragale 'bota egiteko gogoa, oka egiteko	«Lozanok goragalea sentitu du.»	(146)
gupidatsu 'errukiorra, errukitsua'	«...eta fartsa bat antzezten dute. Gezur gupidatsua konpartitzen dute.»	(137)
gupidatu 'errukitu, pena hartu'	«Hainbeste paper, ezen Toni Suredaz gupidatu baita.»	(43)
gurari 'apeta, nahi berezia'	«Atebete lehenago, galdetu zidan ea kapritxoren bat edo gurari bereziren bat ote nuen.»	(11)
hats 'kiratsa, sunda'	«Ez zitzaidan gustatu Jesusen izerdi- hatsa ...»	(171)
hautestontzi 'botuen kutxa'	«Nahiago izan zutelako Julio Zesarren bizkarretik hil, hautestontzien eta legioen menpe geratu baino.»	(170)
hazka egin hatzekin igurtzi azkura kentzeko	Lozanok zalantza egin du, buruari hazka egin , eta hausnarketan murgildu da.»	(52)
haztamuka 'itsumustuan, eskuaz haztatuz'	«Esku zikinarekin ohe azpian haztamuka , guztiz barregarri.»	(202)
higuingarri 'nazkagarria, nardagarria'	«Munduak, higuingarri eta berekoi, ez du inongo begirunerik izan...»	(33)
hilotz 'gorpu, hilda(koa)'	«...duela lau urte hil arren, modu artifizialean bizirik iraun duten hilotz batzuen etxea.»	(15)
hustasun 'ezereza, hutsa'	«...eta berriz ere hasi da hizketan, zalantzaz, absentziaren hustasun onartezinari aurre egiteko darabilen zalantza berarekin.»	(18)
iltzatu 'txertatu, sartu'	«Orduan, guraizetxo batzuk ikusi ditu apalean, eta senari kasu eginda, bere gorputzean iltzatu nahi izan ditu...»	217
imintzioka 'keinuka'	«Sheakespeare-ren tragedietako aktore baten gisan ari den bitartean hizketan eta imintzioka .»	243
iradoki 'sujeritu, aditzera eman'	«Esan Lleidakoei, horiek hurbil daude-eta, ea beraiek konpon dezaketen, iradoki dio.»	(149)
irisazio 'koloreztapen, distira modukoak'	«Zazpi urte lehenago bere semearen ezkontzan estreinaturtiko jaka grisa jantzi du, eta irisazio gorriak dituen zetazko gorbata.»	(13)
irmo 'sendoa, tinkoa'	«Nahiko irmoa , erabatekoa eta tragikoa.»	73
irmotasun 'tinkotasuna, jarreran sendo'	«...eztarria garbitu eta tenbrea irmotasunez sakatu du.»	(13)
iruzurti 'maltzurra, faltsua'	«Halaxe esaten zuten errepikatzaileek, nahiz eta ez zen beharrezkoa. Urrunetik ikusten zen iruzurtia zela.»	(154)
iskanbila 'istolua, liskarra'	«Anaiek ez dute iskanbilarik sortzen, existituko ez balira bezala da.»	(119)
iskin egin 'itzuri egin, ekidin, saihestu'	«Galdetzen zien ea merienda hartu nahi zuten, baina iskin egiten zioten.»	(129)



itsumustuan 'ezustean, ustekabean'	«Mahai-tresnen tiradera ireki eta, itsumustuan , aizto bat hartu du.»	257
kaiku 'baboia, ergela, tontolapikoa'	« Kaiku adeitsua izan zen, kaiku koldarra, Peppek ezerezean utzitako kaikua.»	217
kalamastra 'destartalatua, hondatua'	«Orain, San Antoniko Azokatik hurbil dagoen estudio kalamastra batean bizi da, txakur batekin.»	(51)
kaskarin 'txoriburua, txolina'	« Kaskarina eta ausartegia izan zen, eta garesti ordaindu zuen.»	(135)
katuka 'lan hankatan'	« Katuka dabilela, ama esan duela, koilara berak bakarrik sartzen duela ahora.»	(177)
kikildu 'beldurtu, mekotu, koldar jarri'	«Eta Jesus handia kikildu egin zen...»	(171)
kikilduta 'koldartuta, beldurtuta'	« Kikilduta zeuden egoera haren aurrean.»	81
kimera 'ametssetako zerbaite'	«Barbara zorrotzasunez, erantzukizunez eta ausardiaz hezi ahal izateko. Baina hori kimera hutsa da.»	(30)
kirrinka 'irrintzi moduko zarata'	«...eta astiro-astiro bultzatu du (filigrana), kirrinka egin ez dezan.»	250
kirtenkeria 'astakeria, lelokeria'	«Ezin izan da kontzentratu should eta must bezalako kirtenkerietan .»	(151)
kitzikatu 'zirikatu, kilikatu'	«Badaki nola kitzikatu behar diren segurtasunik gabeko nerabeak haien konfiantza lortzeko.»	(147)
kliskatu 'begia itxi-ireki'	«Bergia kliskatu zuela.»	(140)
koldar 'beldurtia, kakatia, mekoa'	« Koldarra izan zen egoismoz.»	(135)
kontsigna 'agindua'	«Elisabeth autolaguntzako gidaliburuaren kontsignak eta aholkuak ematen hasten denean...»	(187)
kontzesio 'baimen gisakoa'	«Existitzen ez den ustezko adiskidetasunari egindako kontzesio gisa edo.»	73
kranpoi 'mendiko botentzako tresna'	«Bazekien kranpoiak janzen, pioletak iltzatzen, sokak lotzen eta paretak rappel eginez jaisten.»	(191)
krudel 'ankerra, bihozgabea'	«Agonia luzea imajinatzen zuen, eta batez ere, heriotza krudela .»	(118)
kulata 'mangoa, kirtena'	«Barre egiteko gogoia etorri zait, baina ezin izan dut, errebolberraren kulatarekin jo nau.»	242
kuxina 'kojina, almohada'	«Eta ikaratuta, kuxinaren azpian ezkutatu dut segituan, autoaren motorra...»	(31)
lamizkatu 'miazkatu'	«Egunero jaten ematen zidanaren eskua lamizkatzen nuen, txakurtxo baten moduan, isatsa astintzen nuen (...) hezur baten truke...»	(165)
lardaskatu 'nahastu, aldrebestu'	«Oso umetan hasi zen hizketan, eta den-dena lardaskatzen zuen bere trapuzko mingainarekin.»	(25)
latz 'bortitz, lakar, leuntasunik gabea'	«Horrexen beldur zen, hain zuzen ere, Peppek modu latz hartan begiratzen zionean...»	(132)
lausengu 'zurikeria, losintxa'	«...Toni Suredak atea zeharkatzen duenean lausenguzko irribarrea eskainiko diola idazkariari...»	(54)
lausoa 'lainotua, nahasia, zirriborratua'	«Orain, hori guztia oroitzapen lausoa baino ez da.»	(22)
lausotu 'lanbrotu, nahastu'	«Eta halako batean ikuspegia lausotu egin zaio...»	219



laztasunez 'fineziarik gabe, zakar'	«Denbora guztian, laztasunez mintzatzen zitzaidan bitartean...»	239
limurkeria 'norbait konbentzitzeko ekintza'	«Dena egiten zuen limurkeria infantil eta inozente samarrean.»	(155)
limurkeria 'indezentea, deshonestoa'	«Esan zion Barbara txora-txora eginda zegoela Jesusekin, horixe zela egia, limurkeriatan ibiltzen zela harekin...»	(67)
lotsaizun 'iraina, laidoa'	«Izututa begiratu diot, eta haren begietan mespretxua, lotsaizuna , arbuioa bilatu dut.»	261
mahats parra 'mahats landareak egitura batean'	«Masiako mahats parren azpian sandia jaten zutenekoa...»	(186)
mahuka 'manga'	«Egin duen lehenengo gauza corbata eta jaka kentzea da, eta alkandoraren mahukak biltzea.»	(43)
maina 'negar purrustadak, negarra'	«...hain maina ikusgarriak egin izanak.»	(118)
makaldu 'ahuldu, indargabetu'	«Pentsatze hutsarekin, begirada lausotu eta hankak makaldu zaizkit.»	(33)
makalik 'ahul'	«Suredari xuxurlatuko dio Lozano gezurti hutsa dela, eta haren emaztea ez dagoela makalik .»	232
masía 'etxaldea (Katalunian)'	« Masiako mahats parren azpian sandia jaten zutenekoa...»	(186)
mataza 'korapiloa, bildua'	«Sentitzen du urrunera heldu ahal izan zela, bere ametsen mataza pazientziaz askatu eta, haritik tira eginda, hiritik kanpora...»	(22)
matxinatu 'indarrez altxatu, jarki'	«Orduan, azkenik, andrea matxinatu egiten da, eta adoretuta, aurpegira esaten dio nazka ematen diola...»	(169)
matxuratuta 'hondatuta, aberiatuta'	«...jantokiko pertsianak bi urte daramatza matxuratuta , eta oraindik inork ez du konpondu.»	(15)
melenga 'hitz jario gozoegia'	«...hain gozoak eta hain melengak ziren hitz haiek irentsis...»	(66)
menderakaitz 'gaindiezina, menderaezina'	«Barbarari buruz egin ziguten erretratua gurasoek egin zigutena baino atseginagoa eta maitagarriagoa izan zen, ez pertsona menderakaitz batena.»	81
mesfidati 'susmakor, aieruz'	«Bat-batean, norbaitek mesfidati ireki du atea, segurtasun-kutxatxo baten atzean babestuta.»	(14)
mesianiko 'interpretazio berezikoa'	«Txarto amaituko duzu, galdua zara, bide txarretik zoaz, esaten zidan berak, modu mesianiko eta profetikoan, begiak sutan.»	225
mespretxatu 'gutxietsi, aintzat ez hartu'	«Isildu egin nintzen eta orduantxe hadi nintzen gizon hura mespretxatzen .»	(172)
morboso 'jakin-minezkoa'	«Orduan, deskubritu zuen emaztea haurdun zegoela eta tortura bat balitz bezala, galdeketa morbosoa egin zion aita nor zen jakiteko.»	(169)
mutismo 'isiltasuna'	«Oroitu da Barbararen isiltasunaz, mutismoaz ...»	216
narras 'arlote, zarpail, txarto'	«Orain, ilea behar baino lehenago urdindu zaio, narras jantzen da eta derrigortuta hartzen du arnasa.»	(15)
nartzisista 'bere burua maite duena'	«Hain tipo nartzisista , hain kabroia, hain koldarra. Hori izan zen bere ordaina.»	(120)
nerabe 'gaztea, adoleszentea'	«...badaki nola kitzikatu behar diren segurtasunik gabeko nerabeak haien konfiantza lortzeko.»	(147)
oihartzun 'durundioa, sona'	«Horrek oihartzuna eman zion kasuari.»	79
oldarkor 'erasokorra, inpetuoso'	«Dena zitzaidan ezezaguna, oldarkorra .»	(171)



ordain 'saria, pagua'	«Hain tipo nartzisista, hain kabroia, hain koldarra. Hori izan zen bere ordaina .»	(120)
otzan 'apala, umila'	«Janariak otzan bihurtu ninduen, eta halaxe amaitu zen sufrimendua.»	(165)
parrastadaka 'ahurkadaka, piloan'	«Ura parrastadaka ari da erortzen.»	(154)
piko egin 'zauria zirikatzea'	«Alkandora horiaren kontuarekin zaurian piko egitea...»	(181)
piolet 'mendiko puntadun tresna'	«Bazekien kranpoiak janzten, pioletak iltzatzen, sokak lotzen eta paretak rappel eginez jaisten.»	(191)
pipertu 'haserretu, sumindu'	«Salvador Lozano deitzen zen. Tipo pipertua .»	(65)
profetiko 'patua asmatuaz bezala'	«Txarto amaituko duzu, galdua zara, bide txarretik zoaz, esaten zidan berak, modu mesianiko eta profetikoan , begiak sutan.»	225
prospekzio 'saioa, ikerketa'	«Lehenengo prospekzioek ere nondik jo erakusten ziguten.»	73
samin 'atsekabea, tristura'	«Gurasoen saminari trabarik ez egiten ikasi dute.»	(15)
sinesgaitz 'sinesgogor'	«Buru batetik bestera mugitu du, sinesgogor , harriduraz, Evaren hitzak sinetsiko ez balitu bezala.»	(124)
sosegu 'lasaitasuna, baretasuna'	«...eta nerbio hutsa zen, orekarik gabea, sosegurik gabea.»	(132)
soslai 'perfila, silueta'	«Imajinatu baino ezin dut egin, plastikozko plater baten ipurdian nire soslaia susmatuta.»	(38)
sugar 'garra, lama'	«Ez daki negar egin behar ote duen bere alde eta lutuaren trantzea igaro behar ote duen, edo esperantzaren sugarra bizirik mantendu behar ote duen.»	(23)
sumatu 'nabaritu, igarri'	«Artilezko milarraia-traje dotorearen azpian, gorputz proportzionatua sumatzen da.»	(122)
supituan 'bat-batean, ustekabean'	«Zerbait esan diozu Nuriari?, galdetu du supituan .»	(124)
sutsuegi 'suminkorra, haserrekorra'	«Pepek gogorregi jokutzen zuen. Sutsuegia zen, tremendistegia, zorrotzegia.»	(132)
suziri 'kohetea	«Ez nion aparteko garrantzirik eman nahi izan egun hari, nire bizitza ere ez baita suziriak botatzeko modukoa.»	(11)
tematu 'egoskortu, temati jarri'	«Lozano tematu egin zen horrekin, zenbakia apuntatu egin behar zuela...»	(70)
tiradera 'kaxoia'	«... tiraderak zoro baten moduan nahasten hasi aurretik.»	(130)
troka 'sakonunea, ezponda'	«... trokaren batetik eror zitekeela abisatu gabe.»	(133)
txilio 'garrasia'	«Eta aitaren minezko txilioa , zauritutako norbaiten txilioa, eta imajinatu dut borrokan ari direla...»	264
txolin 'buruarina, kaskarina'	«...bere hurratsak entzuterakoan, txolinegia izan nintzen, kutxin bat jarri bainuen gainean, zuloa disimulatzeko asmoz.»	(34)
ubeldura 'odolbilda, kolpatua'	«Gorputz gaztea, ubelduraz eta zauriz betea.»	(134)
ugertua 'herdoilda'	«Eta bere borondate ugertua gutxitan erabilitako engranaje zahar baten moduan jarri da martxan.»	220
urdanga 'emagaldua, meretriza, puta'	«Barbarari urdanga deituz eta adiskide txarra zela esanez.»	(156)



urrats 'pausoa, oinakada'	«Orain ez du urratsik ematen senarraren laguntzarik gabe, ez du pertsonalitaterik...»	(119)
uzkurtu 'bildu bere baitan'	«Eta ama uzkurtuz eta hondoratzuz zihoan bitartean...»	79
xahutu 'gastatu, eralgi'	«Eta badaki bizitza alferrik xahutu duela, familia bat duelako...»	(135)
xalo 'inuzentea, xumea'	«Gaztea, xaloa eta inuzentea delako barkatzen dio...»	(187)
xuxurlatu 'ahapeka, isilean mintzatu'	«Ez egin negar, xuxurlatu dio belarrira...»	(117)
zalu 'arina, bizitasunez betea'	«Atletikoa eta zalu da.»	(122)
zanpatu 'jo, jipoitu, egurtu'	«Baina, baina (...) zutik jarri naiz, urduri, teklak esku biek zanpatuz eta alde batetik bestera mugituz...»	(32)
zarakar 'zakarra, hondakina'	«Hatz-koskorak odoletan utzi arte aritzen nintzen, eta eskuak puztuta geratzen zitzaizkidan, beltz, zarakarrez beterik.»	(33)
zaugarri 'zauritzekoa'	«Aspalditik bizi da larritasunean murgilduta, baina batzuetan, hain da sentipen zaugarria , azala urratzen dioan labana iruditzen baitzaio.»	(20)
zazpiki 'ipurterrea, kakapirria'	«Eta zer? Esaten zion Pepek, ez zaitez zazpikia izan.»	(133)
zeken jokatu 'zikoitz jokatu, ez eskuzabal'	«Mundu guztiak ikusi du erabaki ausartegia hartu dudala, zeken jokatu dudala...»	234
zekenkeria 'zikoizkeria'	« Zekenkeria galanta izan da.»	(179)
zerumuga 'ortzemuga, horizontea'	«Atzean zituzten olatu bortitzek eta zerumugan sumatzen ziren hodei mehatxagarriek, beharbada gertatuko zena iragartzen zuten...»	(182)
zezelka 'gaizki ahoskatuaz, zatika bezala'	«Evak zezelka agurtu zuen Lozano.»	(159)
zilegi 'bidezkoa, permititua'	«Aukera bat da, beste edozein bezain zilegia , iruditu zaio.»	(183)
zipriztindu 'zipriztinez busti, txiplistadaz'	«...nire gorputz zuria itsaso urdinaren monotonian zipriztinduko zuen puntutxo urrun bat izan arte.»	(12)
zirpilduta 'zirpilak aterata, hariak'	«Bakeroak zirpilduta daramatza, eta kamisetari kolorea joan zaio.»	(147)
zirrikitu 'bitartea, tartea'	«Sumatu baino ez nuen egiten, sabaiko zirrikitutik .»	(61)
zital 'doilorra, gaiztoa, bihotz txarrekoa'	«Tipo koldarra, zitala , adiskidetasun merkean aritzen zena...»	(156)
zuhurtzia 'zuhurtasuna, tentua'	«Ikusi zeinen ostailu politak! Barbarak zuhurtziaz begiratu zien, konpromisozko...»	(26)
zurbil 'margul, hits, zuri-zuri' (pálido)	«Igarri egiten zitzaidan. Zurbil nengoen eta begi-zuloak nituen.»	(34)
zurbildu 'kolorea galdu, zuri geratu'	« Zurbildu egin da, baina ez du negarrik egin, eta laster berreskuratu ditu kolorea eta ahotsa.»	(123)
zurrunga 'lotan arnas zarata'	«Horrela ez du insomniorik eta ez da ordu ilun eta amaiezinen aurka borrokan aritu behar, iratzargailuaren tik-tak hotsa eta Peperen zurrungak entzunez.»	(21)
zurtuta 'harrituta, txundituta'	«Eva telefonoa eskuan hartuta geratu zen, zurtuta , erreakzionatu ezin da.»	(63)